

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILARI

Joseba Unzalu Aurrekoetxea jauna, nortasun agiriko zenbakia 16276417F duenak, **Iruña-Veleia Martxan!** elkartearen izen eta ordezkartizan, aipatu elkartearen lehendakaria den heinean, zeina EAEko elkarten erregistro nagusian 2020RTS00856911 erregistro zenbakiaz inskribatua dagoen, identifikazio fiskaleko zenbakia G02744795 eta helbide soziala Gasteizko Heraclio Founier 29 – A, 3 A duen, Eusko Jaurlaritzaren aurrean aurkeztu eta egokien den moduan, elkarte gisa DIOGU:

Ordezkatzen dudana elkartearen izenean eskatzen dugu Iruña-Veleiako aztarnategia eta indusketen ondorioz egon diren aurkikuntzak babesteko Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen arabera administrazio espedientea hastea eta, dagozkion ikerketa, txosten, azterketa tekniko eta frogak burutu ondoren, Iruña-Veleiako ondasun higiezin, higigarri eta inmaterialak babes bereziko kultur ondare bezala deklaratzeko eta dagokien araubidea aplikatu diezaiola.

Honako eskaeraren oinarrian daude jarraian azalduko diren

GERTAERAK

LEHENA.- Iruña-Veleiako aztarnategia 1916ko maiatzaren 22ko Errege Aginduaren bidez *“monumento nacional”* gisa izendatua izan zen. Uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuaren bidez (abuztuaren 4ko 132. zenbakidun EHAA) Eusko Jaurlaritzak aztarnategiko Oppidum eta Trespuentes Zubia *“nazio mailako kondaira - artezko monumentotzat”* jo zituen, kalifikatutako kultura ondare bezala sailkatuaz. Espainiako Ondare Historikoaren ekainaren 25eko 16/1985 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriaren arabera, aipatu babesa ere aitortu zitzaion.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriaren arabera, Oppidum-a babes bereziko kultura ondarea da eta, babes eraentza berezirik esleitu ez zitzaionez, babes bereziko ondare-higieziei aplikagarria zaien eraentza dagokio. Edonola ere, aipatu arauaren

arabera ulertu daiteke Iruña-Veleiako aztarnategiko ondasun higiezin eta higigarri guztiak kalifikatutako kultura ondare izatera igaro zirela, 7/1990 Legea indarrean sartu aurretik kulturarako baliagarri zenaren aldarrikapena jasoa baitzuen aztarnategiak. 7/1990 Legearen 43. artikulua arabera “*ondare arkeologikoa*” dira, 2. artikuluko “*ondare kulturala*” izateaz gain, eta 47. artikulua arabera arkeologia eta paleontologiarentzat interesgarriak diren ondasunak jabari publikokoak izango dira.

Jabari publikoko ondasun gisa Euskera, Kultura eta Kirolen departamentura atxikia geratu zen, Arabako Lurralde Historikoko Ondarearen otsailaren 23ko 5/1998 Foru Arauaren ondorioz.

Iruña-Veleiako aztarnategia Arabako Foru Aldundiaren hiri ondasun higiezin inbentarioan 103 zenbakiarekin inskribatua dago, “*Yacimiento Arqueológico de Iruña de Oca*” izendapenarekin, Iruña Oka Udalaren Trespentes jurisdikzioaren baitan.

BIGARRENA.- Iruña-Veleia bezala ezagutzen da Arabako Iruña Oka herrian kokatutako arkeologia aztarnategia, Gasteiz hiriburutik 10 km ingurura dagoena eta Veleia zeritzon aspaldiko hiri erromatarrari dagokiona. Karistiarren hiri garrantzitsuena izan zela uste da.

Erreferentziarik zaharrenak XVI. mendekoak dira, Diego de Salbatierraren eskuizkribuan jasotakoak. Ezagutzen diren lehen landa-azterketak XIX. mendean “*Comisión de Monumentos de Álavak*” Florencio Janer jaunaren gidaritzapean burututakoak izan ziren.

1900 urte inguruan Jaime Berastegi jakintsu eta presbiteroak harresitutako eremuaren iparraldean ikerketak burutu zituen. Egitura haundi baten aztarnak agerian jarri zituen, “*castellum aquae*” bezala identifikatua izan zena, egiazki antzinako eraikin goinperial bat, gerora erromatar berantiarreko harresiaren trazatua sartua.

1949 - 1954 artean, Gratiniano Nieto Gallo jaunak sektore batzuetako indusketari ekin zion, harresitutako eremuaren barruan hainbat eraikinen aztarnak lurpetik ateraz eta harresiaren kanpo aldeko zati bat garbituz.

1974 – 1975 artean Juan Carlos Elortza Guinea jaunak harresiaren ate nagusiaren inguruan indusketa lanak burutu zituen.

1994 urtean Eliseo Gil Zubillaga jaunak ekin zion aztarnategiko indusketa lanei.

2006. urtearen erdialdera Iruña-Veleiako aztarnategian eginiko ezohiko aurkikuntza batzuen berri eman zen. Ondoren, ostraka eta grafito horietako batzuen (ez guztien), egiazkotasuna auzitan jarria izan zen; zehazki 2005eko ekaina eta 2006ko azaroa bitartean aurkitu eta katalogatutako 381 grafitoetatik 39rena.

Gil Zubillaga jaunaren aurkikuntzen inguruko zalapartaren ondoren edota ondorioz, 2009tik Julio Nuñez Marcen jaunaren esku utzi ziren Iruña-Veleiako aztarnategiaren indusketa lanak.

Bistan den bezala, Iruña-Veleiako aztarnategian topatutako aurkikuntza gehienak ondare babes bereziko kultura ondaretzat aitortzea falta da. Aztarnategia bera bere osotasunean eta indusketetako emaitza izan diren aurkikuntza guztiak, dagokion metodo zientifikoaren bidez aztertuak izan ondoren, babes berezia merezi duten kultura ondarea izan litezke, eta hala badira, 6/2019 Legeak aurreikusitako kultura ondarea babesteko araubidea aplikatzea dagokie, aztarnategiari ezezik baita honako elementuei ere:

- Gratiniano Nietok 1950eko hamarkadan topatutakoak (61)
- Elorza Guineak 1974-1975ean topatutakoak (65)
- Lurmenek 2004tik 2007ra bitartean topatutakoak (381 grafito, bide judizialean aztertu diren 39ak kontuan izan gabe)
- EHUko Arkeologia Sailak 2009tik 2018ra topatutakoak (2 grafito?)

HIRUGARRENA.- Esan bezala arkeologia pieza batzuetako grafitoen egiazkotasuna auzitan jarri zen, zehazki 39rena. Prozedura penala izapidetu ondoren, Gasteizko Zigor-Arloko 1. zenbakiko Epaitegiak 2020ko ekainaren 8ko data duen 44/2020 zenbakidun Sententzia eman zuen eta auzitan jarritako 39 grafitoetatik 36 faltsutuak izan zirela ondorioztatu zuen. Sententzia horren ondorioz Eliseo Gil Zubillaga jauna zigortua izan zen, batetik, dokumentuak faltsutzearen delitu jarraitu baten egile gisa, ondare historiko-kulturalaren

aurkako falta jarraituarekin harremanean, eta bestetik, iruzur delitu jarraitu baten egile gisa, agiri pribatuak faltsutzearen delitu jarraituarekin harremanean. Halaber, azken delitu honengatik Ruben Manuel Cerdán Casilari jauna ere zigortua izan zen. 72 €ko erantzukizun zibila inposatu zitzaion.

Epaia errekurritua izan zen eta, ondorioz, Arabako Probintzia Auzitegiaren Bigarren Atalak 2021eko urtarrilaren 26ko data duen 12/2021 zenbakidun Sententzia eman du, zeinetan defentsen errekurtsioak errefusatuak izan ziren eta Fiskaltza eta Arabako Foru Aldundiko errekurtsioak hein batean aintzat hartuak izan ziren. Aldaketa nabarmenenak dira faltsututakoa “dokumentu pribatu” izaera beharrean “dokumentu ofizial” izaera dutela ondorioztatzen duela Auzitegiak (eta horregatik zigorrean dagoen aldaketa), Gil jaunari aztarnategi arkeologikoetan lan egiteko desgaitasuna berezia inposatzen zaiola eta erantzukizun zibila Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari erdibana ordaindu behar zaiola deklaratzeko delakoa.

Edonola ere, eztabaida horretan arkeologia pieza horietako grafitoen egiazkotasuna defendatzen duten adituen hainbat eta hainbat txosten perizial eta tekniko daude. Txosten hauek idatzi honekin batera dokumentu bezala laguntzearen kalterik gabe, bakoitzaren sinopsia edo laburpena egingo dugu Berebat-ean (bertan adierazitakoara igortzen naiz).

Azpimarragarria da aditu hauek guztiak Gasteizko Zigor-Arloko 1. zenbakiko Epaitegiaren epaiaren ondoren, atzera egin beharrean, berretsi egin zutelako iritzia eta ustea, 2020ko abuztuan publikoki adierazi zuten bezala (*“Iruña-Veleia auzia, zientzia eta epaia”* idatzia, hamalau adituk sinatua).

Honenbestez, gainerako arkeologia aurkikuntzak (ondare higiezin, higigarri zein inmateriala izan) metodo zientifiko bidez aztertuak izan behar diren bezala, arrazoi nahikoa dago prozedura penalaren pean egon diren 39 grafitoak ere egiazkoak diren edo ez aztertzeko, metodo zientifiko bidez, eta dagozkion ondorioak atera eta aplikatzeko. Are gehiago, auzi penaleko epaia bereziki bi txosten perizialetan oinarritu denean eta auzi penala oraindik zabalik eta amaitu gabe dagoenean.

- / - / -

Laburbilduz, gaur egun Iruña-Veleiak duen babesa mugatua eta txikiegia da, izan dezakeen balio eta garrantzia kontuan hartzen badugu. Gaur egun babes bereziko ondare izendapena Oppidum-era mugatzen da, baina ez dago zalantzarik Iruña-Veleiak bereziko balio eta garrantzia duela hainbat ikuspuntutatik (historikoa, arkeologikoa, linguistikoa, kulturala, etab.) eta egun deklaratu dagoena baino zabalagoa eta haundiagoa izan beharko lukeela duen aitortza eta babesa.

Arrazoi nahiko egon badago kultur ondare horren aldaketa, osaketa edo zabalpena egiteko. Beharrezkoa deritzogu euskal kultura ondarearen parte den Iruña-Veleiako aztarnategia eta indusketen ondorioz egon diren aurkikuntzak behar bezala babestea, dagokion aitortzaren bidez eta dagokion araubidea aplikatuaz. Horretarako nahitaezkoa da 6/2019 Legeak aurreikusitako administrazio espedientearekin hastea eta espedientearen izapidetzaren baitan dagozkion ikerketa, txosten, azterketa – tekniko eta - zientifikoak eta frogak burutzea Iruña-Veleiako ondasun-higiezin, -higigarri eta -inmaterial guztien inguruan.

ZUZENBIDE OINARRIAK

LEGITIMAZIOA ETA INTERESATU IZAERA

Laguntzen ditugun estatutuen bigarren artikuluan egiaztatu daitekeen bezala, elkartearen helburuak dira:

- *“- Iruña-Veleiako ondarea ikuspegi linguistikotik ezagutzea: euskera, latina...*
- *Iruña-Veleiako ondarea ikuspegi historikotik ezagutzea: karistiarren garaia, erromatarren inbasioa eta amaiera...*
- *Iruña-Veleiako ondarea ikuspegi kulturaletik ezagutzea: paleokristautasuna, egiptologia, kultura oro har...*

- *Iruña-Veleiatik ateratako eta zalantzan dauden grafitoak egiazkoak diren ala ezargitzeko lana egitea, zientziak eskaintzen dituen bideak erabiliz: grafitoen datazioak, kata kontrolatuak, auditoriak...*
- *Erakunde publikoekin batera zalantzan egon daitezkeen grafitoen balioa argitzeko elkarlana egitea.”*

Ordezkatzen dudan elkarteak legitimazioa du hasi, zabaldu eta izapidetu daitezkeen administrazio espedientean parte hartzeko eta interesa dauka Iruña-Veleiako aztarnategiari eta indusketetako aurkikuntzei eragin diezaikeen edozein gora beheratan; elkartearen beraren izateko arrazoia baita.

Iruña-Veleia Martxan! elkarteak dituen helburuengatik eta Iruña-Veleiako aztarnategia eta bertako ondasun higiezinak, kultur ondare higigarriak eta kultur ondare inmaterialak ezagutu eta babesteko xedea izanik, interes zuzena du eta legitimatua dago, 39/2015 Legearen 4. artikulua aurreikusitakoaren arabera, Iruña-Veleiari dagokion edozein administrazio jardueratan eta, ondorioz, aztarnategiari edo bere ondareari eragin diezaikeen edozein ebazpen eman aurretik ebatua eta entzuna izan behar da.

Izan ere, interesdunen eskubideak jasotzen dituen 39/2015 Legearen 53. artikuluan aurreikusitako eskubideen titularrak litzateke Iruña-Veleia Martxan! elkarteak, besteak beste kasu honetan aplikagarriak diren honako eskubideena:

- Noiznahi jakitea interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan eta zer izapide-egintza eman diren.
- Prozeduratan jasotako dokumentuak eskuratzeko eta haien kopia lortzeko.
- Prozeduraren edozein alditan, betiere entzunaldiaren izapidea egin aurretik, alegazioak aurkeztu, ordenamendu juridikoak onartzen dituen defentsa bideak erabili eta dokumentuak aurkeztea; organo eskudunak ebazpen proposamena idaztean kontuan hartu beharrekoak, denak ere.
- Informazioa eta aholkuak lortzea indarrean dauden xedapenen arabera proiektu, jarduketak edo eskaerak egitean bete beharreko betekizun juridiko eta teknikoei buruz.

AKZIO PUBLIKOA

6/2019 Legearen 7.3. artikuluan aurreikusitako akzio publikoaren arabera, *“edonork du legitimitatea kultura-ondarearen alde jarduteko, eta, beraz, egoki iritzitako egintzak bideratu ahal izango ditu, administrazio-bidean edo bide judizialean, administrazio publikoei lege honetan xedatutakoa bete dezatela exijitzeko.”* Egintza horien artean dago, besteak beste, kultur ondasunen babesa proposatu ahal izatea.

Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legeak lehen artikuluan finkatzen dituen xedeen artean daude *“EAEko euskal kultura-ondarearen babesa, kontserbazioa eta balio-nabarmentzea bermatzeko, bai eta pertsona guztiek, oraingo eta etorkizuneko belaunaldiek, irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan posible direnean, ondare hori ezagutu, ikertu, hedatu eta goza dezatela erraztea ere.”*

Maiatzaren 9ko Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legeak 7.1 artikuluan euskal kultura-ondarea kontserbatzeko, babesteko, haren balioa nabarmentzeko, sustatzeko, erabiltzeko eta zabalkundea egiteko lanean administrazioek herritarren parte hartzea bultzatuko dutela aurreikusten du *“eta, horretarako, ondare horri buruz dagoen informazioa haien eskura jarriko dute.”* Lege bereko 4. artikulua aurreikusten du administrazioak, Euskal Kultura Ondarearen erakundearteko Organoaren bidez, parte hartzeko mekanismoak antolatuko dituela herritarrek kultura-ondasunen babesa proposatu ahal izan dezaten.

ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEA HASI ETA IZAPIDETZAN BEHARREZKOAK DIREN AZTERKETA ETA IKERKETAK BURUTU, DAGOKION BABESA ZEHAZTU ETA EMATEKO.

6/2019 Legearen 12.1. artikulua arabera, *“Babes berezia eta ertaina duten kultur ondasunen deklarazioak Eusko Jaurlaritzan kultur ondarearen eskumena duen sailaren deklarazio espedientea hastea eskatuko du.”* Prozedura ofizioz hasiko da, kasu honetan bezala pertsona juridiko batek hala eskatzen baldin badu.

6/2019 Legearen 12.2. artikulua arabera, kasu honetan bezala interesatuaren eskariz sustatzen bada deklarazio espedientea hastea, hiru hilabeteko epean ebatzi beharko da prozedura hasiko den ala ez.

6/2019 Legearen 15. artikulua aurreikusten du espedientea hasteak berarekin dakarren ondorioa dela *“ondasun hori babesteko araubide berariazkoa aplikatuko da behin-behinean, bai eta lege honetan aurreikusitako babes-araubide erkidea eta berezia ere.”* Halaber, ondasun higiezinaren kasuan eten egingo dira partzelatzeko, eraikitze eta eraisteko lizentziak.

Behin prozedura abiatuta, nahitaezkoa da interesdunei entzutea, 6/2019 Legearen 13. artikuluan jasotako berariazko arauari men eginaz.

Eusko Jaurlaritzak babes bereziko kultur ondasun edo babes ertaineko kultur ondasun deklaratzeko, nahitaezkoa da alde aurretik espedientea izapidetzea eta bertan eragindako ondasunen zerrenda osoa egin behar da, ondasunen kokalekua zehaztu behar da, hau guztia bidezko txosten eta dokumentazioaren bidez justifikatuta (6/2019 Legearen 17. artikulua). Ondasunen deklarazioak 16. artikulua aurreikusitako elementuak jaso behar ditu. Beraz, beharrezkoa da espedientea izapidetzerakoan azterketa eta ikerketa tekniko eta zientifikoa egitea; eta horren arabera babes maila eta kategoria definitzeaz gain, deklarazioa egiterakoan zehaztu beharreko inguruabar guztiak zehaztea.

Aurkikuntza arkeologiko baten egiazkotasuna, balioa eta oinarritzko inguruabarrak aztertze bide daude, horietako 3 zientzia zehatzei dagozkienak (datazioak, katak eta auditoriak) eta laugarrena eztabaida zientifikoari dagokiona:

- Datazio arkeometrikoak horretan espezializatutako laborategi batek edo batzuk egin beharko lituzkete. European gaur egun punta-puntako bost bat arkeometria laborategi daude. Grafito bat noizkoa den ziurtasun osoz zehazteko hilabete bat behar izaten da eta datazioaren koste ekonomikoa 600 – 2000 € bitartekoa izaten da.
- Indusketa kontrolatuak edo katak arkeologo independente eta adituen eskutik egin beharko lirarteke Iruña-Veleiako aztarnategian.

- Auditoria arkeologikoa, landa koadernoak eta Iruña-Veleiako indusketetako dokumentazio eta material guztia aztertuz burutu beharko litzateke, lan arkeologikoa behar bezala burutu zen egiaztatzeko.

6/2019 Legearen zioen azalpenean esaten den bezala, *“kultura- ondarea da iraganetik gizarteak jaso dituen ondasunen multzoa, zeinean gizarte horrek kontserbatzea eta transmititzea merezi duten balioak aitortzen dituen”*. Ondarearen inguruko kontzeptuaren garapenaren ondorioz kultur ondarearen kontzeptu berri bat ondu da, eraketa ukigarriak ez ezik, giza sorkuntzaren emaitza diren bestelako adierazpen ukiezinak ere besarkatzen ditu. Hala, ondasun higiezin eta higigarriak babesteaz gain, ondasun inmaterialak ere gaur egun babestu daitezkeen eta babestea merezi duten ondareztat jotzen dira. Iruña-Veleiako kasuan 6/2019 Legeak aplikazio eremuko hiru elementuak aurkitu ditzakegu: ondasun higiezinak (aztarnategia orohar, lurzorua, lurrazpia, eraikinak), higigarriak (elementu arkeologikoak, ostrakak, etab.) eta inmaterialak (grafitoak adibidez). Elementu guzti hauek babestu beharreko elementuak dira.

Azaldutakoarengatik,

ESKATZEN DUGU: Honako idatzia eta lagundutako dokumentuak aurkeztutzat izan ditzala eta, ondorioz,

1) Iruña-Veleiako aztarnategia eta bertako aurkikuntzak babes berezia duten kultur ondasun izendatzeko deklarazio espedientea zabaldu eta izapidetu dezala.

2) Espedientea zabaldu eta amaitu bitartean, beharrezkoak diren babes neurri guztiak hartu ditzala Iruña-Veleiako aztarnategia eta indusketetako aurkikuntzak behar bezala kontserbatu daitezen eta adituengatik eta metodo zientifiko bidez aztertutako izateko aukera egon dadin, bai eta suntsituak, kaltetuak edo manipulatuak izan ez daitezen. Halaber, espedientea hastearekin bat, behin behinean, Iruña-Veleiako aztarnategiari eta indusketetako aurkikuntzei babes berezia duten kultura ondareen araubidea eta babes - araubide erkidea eta berezia aplikatu diezaiela.

3) Iruña-Veleiako kultur ondasun higiezinak, higigarriak eta inmaterialak babesteko espedientea jendurrean jarri dezala eta interesdunak entzunak izan daitezela. Halaber, aipatutako espedientean Iruña-Veleia Martxan! Elkarteak aintzat hartu beharreko alderdi eta interesatutzat jo dezala; alegazioak egiteko, frogak proposatzeko eta frogen praktikan parte hartzeko aukera eman diezaiola eta entzunaldia eman diezaiola.

4) Iruña-Veleiako aztarnategian aurkitutako ondare-higiezin, ondare-higigarri edo ondare inmaterialen baten benetakotasunaren inguruan zalantza edo eztabaidarik balego, espedientearen baitan metodo zientifikoaren bidez ikerketa burutzea agindu dezala eta, ondorioz, dagozkion ikerketa, txosten, azterketa tekniko eta frogak burutzeaz gain, benetako edo faltsua izan daitekeen ondare higiezin, higigarri edo inmaterial bakoitzaren datazioak, kata kontrolatuak eta auditoriak egin daitezela.

5) Hala badagokio eta dagokion Dekretuaren bidez Iruña-Veleiako aztarnategiari (bere osotasunean) eta bertako aurkikuntzei (izan ondare higiezinak, higigarriak edo inmaterialak) babes berezia duten kultura ondasun deklarazioa eman edo zabaldu diezaiela, elementuz elementu dagokion ondare kategoria eta ondare mota zehatza finkatuaz, eta babes berezia duten kultura ondasunen araubidea aplikatu diezaiela.

Bidezkoa delako eskatzen dut Gasteizen 2021eko otsailaren 10ean

Iruña-Veleia Martxan Elkarteak

BEREBAT DIOT: Jarraian gertaeren atalean aipatutako eta idatzi honekin batera laguntzen diren txostenen sinopsia edo laburpena:

1.1- Iruña-Veleian erabilitako metodologia arkeologikoari eta beste zenbait gairi buruz → [01.1-Eliseo Gil ES](#)

Gaia: Batzordeak egindako txostenei egindako erantzuna.

Laburpena: Azterketa honetan, Lurmenek indusketa lanetan erabilitako lanei buruz EHUKo Arkeologia Saileko kideek euren txostena idaztean egindako irregulartasunak agerian jarri dira. Horrez gain, euren praktika desegokiak ere aipatu dira: baloratu beharreko informazioa nola aukeratu duten, haien kanpo aholkulariei ezkutatutako informazioa, oker esandako gauzak eta baita, iritzi emate hutsa diren hainbat eduki. Planteatzen diren arazoei ere irtenbidea eman die, horietako asko, arazo ez zirenak. Txosten hau EHUKo Arkeologia Arloetako txostenei egindako erantzuna da eta Arabako Foru Aldundiko Batzordeari aurkeztu zitzaion gai hau aztertzen ari zen garaian, 2008an.

1.2- 2007ko maiatzaren txosten arkeologikoa → [01.2-Idoia Filloy-Eliseo Gil ES](#)

Egileak: Idoia Filloy Nieva eta Eliseo Gil Zubillaga, biak arkeologoak eta historialariak.

Gaia: Indusketei buruzko txostena, garai hartan Cultura Diputatua zen Miren Azkaratek egindako eskaeragatik sortua. Izaera orokorreko txostena da, irakurle ez espezializatuari zuzendua.

Oharra: Txosten hau Arabako Foru Aldundiko Batzordeari aurkeztu zitzaion gai hau aztertzen ari zen garaian, 2008an.

1.3- Txosten arkeologikoa: Iruña-Veleia, 5. Sektorea, 59. eremua → [01.3. Idoia Filloy](#)

Egileak: Idoia Filloy Nieva eta Eliseo Gil Zubillaga, biak arkeologoak eta historialariak.

Gaia: 59 eremuko 5. sektoreko dokumentazio arkeologikoa.

Oharra: Txosten hau Arabako Foru Aldundiko Batzordeari aurkeztu zitzaion gai hau aztertzen ari zen garaian, 2008an

Luzera: 209 orrialde.



2.- Metodo arkeologikoari buruzko irizpena (Iruña-Veleia.) → [02-Carmen Fernandez Irizpena](#)

Egileak: Carmen Fernandez Ochoa Dok., Arkeologian katedraduna, Angel Morillo Cerdán Dok., Arkeologian irakaslea.

Gaia: Iruña-Veleian erabilitako metodo arkeologikoren balorazioa.

Laburpena: Fdez Ochoa eta Morillok Iruña-Veleiako 5. sektorearen 59. barrunbean egindako indusketa gaitasun zientifiko osoz egin dela ziurtatu dute agiri honetan, bai planteamendu metodologikoari baita datu kronoestratigrafikoen bilaketa zehatz-mehatzari esker, gaur egun diziplina arkeologikoan aplikatzen diren sistemen arabera. Erregistroa Harris Matrixak eskatzen duen zorrotasunaren arabera egin da. Horri esker, "izakin arkeologikoa" era objetibo eta aseptiko batetik ikusteko aukera ematen digu.

3.- Iruña-Veleiko indusketa erabilitako metodo arkeologikoari buruzko irizpena → [03-Emilio Illarregi Irizpena](#)

Egilea: Emilio Illarregi, arkeologoa eta Arkeologian doktorea

Gaia: Iruña-Veleian erabilitako metodo arkeologikoren balorazioa

Laburpena: nahiz eta egileak ostraken egiaztasun edo faltsutasunaren gaiari buruz duen iritzia ez eman, Iruña-Veleian egindako eskuhartze arkeologikoak erabateko gaitasun zientifikoekin egin direla baieztatzen du.

4.- To whom it may concern Iruña-Veleia Archaeological Assessment (*Ebaluazio arkeologiko bat*) → [04-Edward Harris EN Edward Harris Gazteleraz](#)

Egilea: Edward Cecil Harris Dok., Bermuda Maritime Museum-eko zuzendaria

Gaia: Iruña-Veleian erabilitako metodo arkeologikoren balorazioa.

Laburpena: Edward C. Harrisen iritziz, indusketa metodoari dagokionez dio argi dagoela indusketa arkeologikoa goi mailako estandarren arabera egin dela diosku. Edward C. Harris Doktorea Bermudako Itsas Museoko zuzendaria da. Horrez gain, arkeologia garaikideak darabilen metodoaren sortzailea da (Harris Matrix), bere "Principios de estratigrafía arqueológica" liburuan jasota daudenak. Harrisek Lurmenen lana ontzat ematea erabat baieztatzen du Eliseo Gilen taldeak egindako lanaren baliagarritasuna.

5.- Iruña-Veleia. Hiri erromatarraren indusketa arkeologikoetan agertutako zenbait grafito bereziki buruzko iritzia → [05-Antonio Rodriguez Colmenero](#)

Egilea: Antonio Rodriguez Colmenero Dok., arkeologo eta epigrafista Santiago Unibertsitateko katedraduna.

Gaia: Grafitoen epigrafia eta ikonografiari buruzko txostena.

Laburpena: Galiziako Done Jakue Unibertsitateko katedradun emeritua, epigrafista aditua eta arkeologoa den Antoniok iritzi zuhur bat eman du Iruñako ostrakei buruz hipotesi guztiak kontuan hartuz. Batzordeko beste kide batzuek erakutsitako jarrerari (faltsutasuna) garantzia kentzen dio eta, Perring eta Iglesiasekin batera, proba fisiko-kimikoak eta kontrasteko indusketa arkeologikoak egitea ezinbestekoak dela dio.

6.- Egipziar itxurako hieroglifikoa duten ostrakei eta hezur eta ostraka gainean egindako izen egipziarrei buruzko txostena.. [06 Ulrike Fritz EN](#)

Egilea: Ulrike Fritz Dok., Alemaniako Tübingengo Unibertsitateko hizkuntzalaria eta egiptologoa.

Gaia: Egipziar motako hieroglifikoa eta Egiptoko historia eta erlijioaren pertsonaiak aztertzen dituen txostena.

Laburpena: Fritzko ostraka batzuetan dauden zeinuak egipziar motakoak direla dio baina idatzi zituztenek ez zutela egiptoera hizkuntza ezagutzen, bai ordea Egiptoko eraikuntza ofizialetan ikusitako zenbait zeinu gogoratu. Horrela, hitz horiek ez dituztela esaldiak edo irakur daitezkeen izenak osatzen. Pertsona bat baino gehiagok egin zituztela dio. Bestetik, *Nefertiti* moduko izenak Inperio Berrian erabiliak izan zirela dio.

7.- Iruña Veleiako eremu arkeologikoaren izaera bereziko grafitoen motibo ikonografikoei buruzko txostena. [07 Idoia Filloy](#)

Egilea: Idoia Filloy Nieva, arkeologoa eta historialaria.

Gaia: Txosten ikonografikoa, Giuliano Volpe eta Julio Nuñezen txostenari erantzuteko.

Laburpena: Idoiak, ebaluatutako materiala testuinguru arkeologiko desberdinetakoa dela kontuan hartuz, eta bakoitza ondo ezarritako sekuentzia estratigrafiko batekoa izanik, eta ondorioz aukitutako ostrakak garai erromatarrekoak direla ondorioztatuz, zera dio: ez dago proba bakar bat ere ez grafitoak garai erromatarrean egin ez zirela frogatzeko. Beraz, zalantzarik gabe Iruña-Veleiako izaera bereziko ostrakak garai erromatarrekoak direla baieztatu daitekeela.

8.- Iruña-Veleiako izaera bereziko latinezko grafitoei buruzko txostena -> [08 Idoia Filloy](#)

Egilea: Idoia Filloy Nieva, arkeologoa eta historialaria.

Gaia: Zeinu, onomastika, paleografia eta hizkuntzari buruzko txostena, Pilar Ciprés/Juan Santos, Isabel Velásquez eta Joaquín Gorrochateguiaren txostenei erantzuteko.

Laburpena: Lan mardul honetan, Idoiak Batzordeko zenbait txosteni erantzun zehatza ematen die garai erromatarreko ostraka askoren bidez, hemen faltsutat hartutakoen oso antzekoak. Horretarako honako alorretako testigantzak jaso ditu: onomastika, paleografia, izen klasiko, semitar eta egipziarrak, deklinazioak, etab.

9.-Iruña-Veleiako ostrakonen faltsutasuna/egiazkoatasunaren arazoa: ebidentzia fisikoak: -> [09 Koenraad Van den Driessche](#)

Egilea: Koenraad Van den Driessche Dok., geologoa.

Gaia: Grafitoak dituzten piezen ebidentzia fisikoak aztertzen dituen txostena, datazioak egin daitezkeela frogatuz.

Laburpena: Ostrakoen azgazkietan ikusten diren elementu fisikoak zehatz-mehatz aztertu ditu txostenen eta horien ostrakak oso zaharrak izan daitezkeela ondorioztatzen dela. Elementu horien artean letren gainean dauden lurrak, kaltzio karbonatoak, ke arrastoak, sustraien aztarnak, izaten dira. Bestetik, egosi baino lehen seguruenik idatzitako letrak ere aztertzen ditu. Horrez gain analitikak egiteko proposamen zehatz bat egin du ostrakak egiazkoak direla egiaztatu ahal izateko.



10.-Iruña-Veleiako indusketik datozen argazkien bidezko 15 pieza arkeologikoen azterketa bisuala -> [10 Mikel Albisu](#)

Egilea: Mikel Albisu Lasa, geologoa.

Gaia: Zeramizkako 15 ostraka aztertzen dituen txostena.

Laburpena: Buztin egositakoaren gainean idatzita dauden ostraka guztiak analisatu ditu txosten honetan eta, ondorioztatzen duenez, denak letren gainen ikusten den zarakar edo kostra aurretik egosi ziren eta zarakar hori, gutxienez, 10 urte behar ditu sortzeko.

11.- Iruña-Veleiako indusketatik datozen inskripzio antropikodun hezur hondakinei buruzko txostena -> [11-Joaquin Baxarias](#)

Egilea: Joaquín Baxarías Tibau Dok., mediku paleopatologoa, *Associació catalano-balear de paleopatología*-ko eta *Fundació Académica de Ciències Mèdiques i de la Salut de Catalunya y Balears*-eko kidea.

Gaia: Grafitoak dituzten 40 hezur piezen azterketa.

Laburpena: Lan honetan ondorioztatzen denez, analisatutako piezen %54a itxura zaharra dute eta ezin izango lirakeke garaikideak izan. Gainerakoei buruz ezin dela ezer esan, argazkien kalitatea nahikoa ez delako. Berak dioenez, itxura zaharra duten markek ez dute hezur lehorraren gainean egin izan balira eduki beharko luketeen morfologiari. Ezta hezur hezean patina eta lur inskrustazioa eginda duten piezen itxurarik. Hau da, ez dirudite orain manipulaturako idazkunak direnik.

12.-Iruña-Veleiako idazkunak -> [12 Hector Iglesias FR](#)

Egilea: Hector Iglesias Dok., filologoa, Baionako IKERreko ikerlea.

Gaia: Euskarazko eta latinezko testuei eta grafitoen ikonografiari buruzko txostena.

Laburpena: Euskal Ikasketan Dokorea den Hector Iglesiasek egindako azterketa sakon eta ondo dokumentatu honek agerian uzten ditu Batzordeko filologoen hutsune eta akatsak, Aldundiak Iruñako grafitoak faltsuak zirela “zalantzarik gabeko proba” gisa izan zirenak bere garaian. Txosten honen balio handiena Iglesiasek egindako kontsulta lan handian datza, batez ere frantziar estatuko adituei latin bulgarrean, kelta hizkuntzan, hizkuntzalariei eta abar egindakoa. Horiei esker Batzordeko 3 filologoen planteaturako “ezintasun” ia guztiak argitu ditu.

13.- Iruña-Veleiako euskal ostrakak direla eta Gorrochategui eta Lakarra irakasleen txostenei egindako oharra eta kritikak -> [13 Martin Elexpuru EU](#) [13 Martin Elexpuru ES](#)

Egilea: Juan Martin Elexpuru Dok., filologoa eta idazlea.

Gaia: Grafitoetako euskarazko testuei buruzko txostena.

Laburpena: Elexpuruk Lakarra eta Gorrotxategi emandako argudioen analisi zehatza egiten du, dagokion dokumentazio eta arrazoiak logikoekin. Ondorioztatzen duenez, ez dago ebidentzia bat ere materiala faltsua dela baieztatzeko.

14.1-Iruña-Veleiako aurkikuntza epigrafiko paleoeuskaldunei buruzko oharra -> [14.1 Luis Silgo](#)

Egilea: Luis Silgo Gauche Dok., Arkeologian dokorea eta euskal-iberiar Epigrafian aditua.

Gaia: Grafitoetako paleoeuskerari buruzko txostena.

Laburpena: Ikerle hau ezinbesteko pertsona bihurtu da hizkuntza iberiarra ezagutzeko, eremu honetan egindako lan eta ikerketa askorengatik. Berak ondorioztatzen duenez, ostrakak in situ agertu izana, erabat dokumentatuta dagoen indusketa prozesu baten ondoren, faltsutasun baten aurrean ezin garela egon dio eta, Iruña-Veleiako idazkunak filologo, historialari eta kristau arkeologiko adituentzat material oso aberatsa direla dio.

14.2- Luis Silgoren honako txostenari buruz: “Observaciones sobre los recientes hallazgos epigráficos paleovascos de Iruña-Veleia” -> [14.2 Jean Baptiste Orpustan FR](#)

Egilea: Jean-Baptiste Orpustan Dokorea, ohorezko irakaslea euskal hizkuntza eta literaturan, honako espezialitateetan: lexicografía, hizkuntzalaritza historikoa, literatura eta onomástica. Euskaltzaindiako ohorezko kidea da eta IKER ikerketa elkartearen ere hartzen du parte.

Gaia: Luis Silgok egindako txostena osatzen du.

Laburpena: Jean-Baptiste Iruña-Veleiako grafitoak egiazkotzat hartzen ditu eta Silgok planteatutako zalantzei hainbat intrerpretazio proposaten ditu.

15.- Iruña-Veleiako peritaje grafologikoei buruzko txostena -> [15_RM_Frank ES](#)

Egilea: Roslyn M. Frank Dok, Iowako Unibertsitateko Gaztelera eta Portugesera Saileko irakasle emeritua

Gaia: Arabako Foru Aldundiko peritaje grafologikoei buruzko txostena

Laburpena: Roslyn-en txosten hau Arabako Foru Aldundiak, Eliseo Gil ostrakak faltsutu zituela probak lortzeko agindutako txosten grafologikoei buruzkoa da. Roslyn-en iritziz azterketa horiek ez dute behar den oinarri zientifikorik eta beraz ezin dira kontuan hartu faltsutasuna oinarritzeko.

16.- EHUko Arkeologia Sailak Iruña-Veleiko aurkikuntza bereziei buruzko “Balorazioa” dela eta egindako oharpenak -> [16_Luis_Silgo ES](#)

Egilea: Luis Silgo Gauche Dok., Arkeologian doktorea eta euskal-iberiar Epigrafian aditua.

Gaia: EHUko Arkeologia Sailak egindako “Valoración” delakoari buruzko txostena.

Laburpena: lan honetan, EHUk egindako “Valoración” izeneko txostenean, Lurmenen jarduera arkeologikoa eta aurkitutako ostrakak egiaztatzeko ezinbesteko alderdiak EHUk ez zituela kontuan hartu frogatzen du. Gainera, EHUk ez zuten informazio osagarririk eskatu eta hori dela eta euren txostenak hutsune eta akats nabarmenak ditu.

17.- Iruña-Veleiako zenbait grafitori buruzko iruzkinak ->

[17 Miguel Thomson EN Comments on some Graffiti of Iruña-Veleia](#)

[17 Miguel Thomson ES Comentarios grafitos Iruña-Veleia](#)

Egilea: Miguel Thomson

Gaia: Grafito polemikoenei buruko iruzkinak

Laburpena: Txosten honetan, hizkuntzalaritzan eta epigrafian aditua ez den M. Thomsonek, Aldundiko Batzordearentzat “zalantzarik gabe faltsuak” diren ostraka polemikoenak sakonki aztertu ditu. Garai greziar-erromatarreko 400.000 hitz baino gehiago daukan datu base bat erabailiz, ikuspegi oso zabala eskaintzen du eta, ondorioztatzen duenez, guzti horiek egiazkoak izan daitezke inolako arazorik gabe.



18.- Iruña-Veleiako idazkun/grafitiri iberiarrei buruz -> [18 Antonio Arnaiz EN](#)

Egilea: Antonio Arnaiz Villena, Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko irakaslea

Gaia: Iruña-Veleiako iberierazko grafitiak

Laburpena: Txosten honetan, Antonio Arnaizek Iruña-Veleian agertutako ostreketako zeinu iberiarrak jasotzen ditu. Bere iritziz, agertutakoa bat dator penintsulako eta Kanarietan ere aurkitutako testu iberiarrekin

19.- Txillardegik Martin Elexpururi aditzei buruzko bidalitako 3 gutun -> [19 Gutunak Gutunak gazteleraz](#)

Egilea: Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, euskal hizkuntzalaria eta euskara batuaren gurasoetako bat

Gaia: Iruña-Veleiako grafitoetako aditzak

Laburpena: Txillardegiren iritziz, grafitoetan agertutako aditz forma batzuk nahiko arkaikoak izan daitezke eta Iparraldean orain dela 3-4 mende jasotako zenbait aditz forma jasotetan ikusi daitezke. Horregatik, berarentzat “grafitoak benetakoak dituk”.

20.- Idoia Filloy: -> [20 Idoia Filloy: Altar](#)

Egilea: Idoia Filloy, arkeologo eta historialaria.

Gaia: Nuñezek 2012an aurkitutako aldarearen testua

Laburpena: Lurmenek 12 aldiz aurkitu zuen “Veleia” hitza, Nuñezek bezala. Horrez gain, Nuñezen Veleia inesiboan egon liteke (Veleian), beraz, euskeraz egongo zen, Lurmenek aurkitutako zenbait testu bezala. Bi arrazoi horiek grafitoak benetakoak izateko argudio bihurtu dira

21.- Antonio Rodriguez Colmenero: [21: Antonio Rguez Colmenero: Altar](#)

Egilea: Antonio Rodriguez Colmenero Dok., arkeologo eta epigrafista Santiago Unibertsitateko katedraduna.

Gaia: Nuñezek 2012an aurkitutako aldarearen testua

Laburpena: Antoniok, Nuñezek ez bezala, beste proposamen epigrafikoa egin du aurkitutako azken aldareari buruz. Bere ustean “Veleian” agertu izana, Lurmenek topatutako beste inesiboen antzera, euskeraz egon daitekeela pentsatzera eramaten gaituela dio.

22.- Alicia Satué: [22 Alicia Satué: El latín de Iruña Veleia](#)

Egilea: Alicia Satué, Filologia Klasikoan eta Hizkuntzalaritza Indoeuroparrean lizentziatua.

Gaia: Iruña-Veleiako latina

Laburpena: Txosten honetan Alicia Satuék latinez agertutako grafitoak sakonki aztertu ditu. Horretarako, III. mendeko beste lurraldeetan agertutako latin bulgarreko testuekin alderatu ditu, beti ere, Iruña-Veleiako testuingurua kontuan hartuz. Bere ustez, bertako grafitoak bat datoz, oro har, latin bulgarrekin.

23.- Mapi Alonso Fourcade: [23 Análisis de un texto escrito en euskera a finales II-comienzos III](#)

Egilea: Mapi Alonso Fourcade, Hezkuntza Zientzietan Lizentziatua Ginebrako Unibertsitatean

Gaia: Iruña-Veleiako III. mendeko eta Nafarroako Iruñeko XXI. mendeko ume euskaldun berriek egindako testuetako euskeraren alderaketa

Laburpena: Txosten horretan ez da grafitoak egiazkoak ala gezurrezkoak diren aferan zuzenean sartzen eta bakoitzari uzten dio bere ondorioak atera ditzan, nahiz eta ondorio argiena da egiazkoak izan daitezkeela. Horretarako, Iruña-Veleiako II edo III. mendeko ume batek idatzitako testuak eta Iruña-Pamplonako XX. mendeko ume batek idatzitakoekin alderatu ditu.

24.- Henrike Knörr: [Iruña-Veleiako euskal idazkunen datazioen inguruan](#)

Egilea: Henrike Knörr, Euskal Filologian Doktorea

Gaia: [Grafitoak noizkoak izan daitezkeen](#)

Laburpena: Henrikerentzat grafitoak ezin dira izan III-V mendeetakoak, VI-IX mendeetakoak baizik. Hau da, berarentzat ez ziren faltsuak, Eliseo Gilek esandakoa baino berantiarragoak baizik.

25.- Mapi Alonso: [25-Mapi Alonso ES El sistema verbal vasco](#)

Egilea: Mapi Alonso Fourcade, Hezkuntza Zientzietan Lizentziatua Ginebrako Unibertsitatean

Gaia: Aditz sistemaren azterketa Iruña-Veleian oinarrituta

Laburpena: Lafonek egin zuen “Le système verbal basque au XVI siècle” oinarri gisa hartuta, Iruña-Veleian ikusten diren aditz aldaera batzuk aztertu ditu

26.- Alicia Satue Lantaron: [La declinación latina en el siglo III a la luz de los grafitos excepcionales de Iruña-Veleia](#)

Egilea: Alicia Satué, Filologia Klasikoan eta Hizkuntzalaritza Indoeuroparrean lizentziatua.

Gaia: Latinaren deklinazioa III. mendean

Laburpena: Izenburuak dioen moduan, txosten honetan latin arruntaren deklinabidearen bilakaera aztertu du Iruña-Veleian aurkitutako aditzak sakon aztertu ondoren

27.- Hainbat: [Iruña-Veleiaren I. Nazioarteko Biltzarra](#)

Egileak: Antonio Rodríguez Colmenero, Idoia Filloy, Edward Harris, Eliseo Gil, Joaquin Baxarias, Luis Silgo, Antonio Arnaiz, Alicia Satue

Gaia: Arlo batzuk jorratu ziren: historia, arkeologia, paleopatologia, hizkuntzalaritza, etab.

Laburpena: 2012an egin zen biltzarrera alderdi biak gonbidatu ziren, grafitoen alde eta kontrakoak baina faltsutzat hartzen dutenek ez zuten parte hartu eta antolatzaileek horien argudioak laburtu eta azaldu zituzten. Gainerakoek benetakotasunaren alde zergatik dauden azaldu zuten.

28.- Hainbat: [Iruña-Veleiaren II. Nazioarteko Biltzarra](#)

Egileak: Eliseo Gil Zubilaga, Idoia Filloy Nieva, Edward C. Harris, Juan Martin Elexpuru Agirre, Alicia Satue Lantaron, Mapi Alonso Fourcade, Luis Silgo Gauche, Mikel Urkola Elizegi, Koenradd Van den Driessche, Miguel Thomsom Okatsu, Antonio Rodríguez Colmenero, Mikel Larrañaga, Ulrike Fritz, Jon Nikolas Lopez de Ituiño, Antonio Arnaiz Villena, Antton Erkizia

Gaia: Arlo batzuk jorratu ziren: historia, arkeologia, hizkuntzalaritza (euskera, latina), historia, egiptologia, kristautasuna, etab.

Laburpena: Biltzarra oso aberasgarria izan zen, ikuspegi asko landu zirelako.

29.- Jean-Baptiste Orpustan: [29-Basque médiéval: Iruña-Veleia](#)

Egilea: Jean-Baptiste Orpustan Doktorea, ohorezko irakaslea euskal hizkuntza eta literaturan, honako espezialitateetan: lexicografía, hizkuntzalaritza historikoa, literatura eta onomástica. Euskaltzaindiako ohorezko kidea da eta IKER ikerketa elkartearen ere hartzen du parte.

Gaia: Iruña-Veleiako euskera Ertarako euskerarekin alderatuta

Laburpena: Ikerle honek aurretik Luis Silgoren txostenean gai honi buruz bere lehenengo ekarpena egin zuen. Oraingoan, erdi aroko euskerari buruz egin duen txosten honetan gai sakondu du. [Erdi Aroko euskera \(txosten osoa\)](#) “Ces inscriptions,

pour fragmentaires et incomplètes qu'elles soient, se révèlent comme une étape d'importance pour la reconstruction de l'histoire de la langue sur plusieurs points essentiels. Au-delà des citations médiévales, onomastiques et autres, dont les plus anciennes, assez rares, n'allaient guère plus loin que le X^{ème} siècle, c'est donc au moins six siècles de vide historique qu'elles comblent partiellement, soit autant que la période qui nous sépare des premiers livres en basque du XVI^{ème} siècle.

Azaldutakoarengatik,

ESKATZEN DUGU: Arestiko adierazpenak egintzat izan ditzala dagozkion ondorioetarako.

Bidezkoa delako eskatzen dugu berriro ere lehen adierazitako lekuan eta datan